


[plazandreok]

emakumeen plataforma politikoa

**¡CAMBIA DE
ÓPTICA!**



EMAN BOTOA FEMINISTEI!

**ORAIN GURE
TXANDA DA**

ZER DA PLAZANDREOK?

PLAZANDREOK politikan gure ahotsa entzunarazi nahi dugun emakumeon elkarte bat gara. Guretzat, politika hau da, batez ere: komunitatearen kontuak kudeatzeko ardura. Gure helburua da esparrua publikoan parte hartzea geure burua ordezkatzuz, pribatutzat hartu ohi diren gaiak publikoak direla ikusaraztea eta gizarteari ematea politika egiteko gure modua.

Plazandreok plataforma plurala da, eta bertako emakumeok batzen gaituena jartzen dugu, bereizten gaituena baino gehiago baita. Gure egitura horizontala da, eta asanblearioa; erabakiak adostasunez hartzen ditugu, guretzat funtsezkoa baita iritzi guztiak biltzea eta elkarrekin aurrera egitea, puntu komunetan oinarrituta. Gure asmoa da gaur egungo alderdi politikoen alternatiba izatea, egitura hierarkikoa eta gehiegizko profesionalizazioa baitira haien ezaugarri nagusiak. Ez dugu politikako profesionalik nahi, eta, horregatik, karguak txandakatzea proposatzen dugu.

Gure plataforma orain dela hamar urte pasatxo sortu zen, eta geroztik eragile aktiboak izan gara hiriaren eta lurraldearen bizitzan. Parte hartu dugu hainbat gaitan lan egiten duten herritar plataforma eta koordinakundeetan; parte hartu dugu erakundeek bultzaturiko herritar foro eta kontseiluetan. Pixkanaka-pixkanaka, eta oztopoak gorabehera, lortu dugu gure udalaren eta diputazioaren gai zerrendetan sartzea orain dela hamabi urte genituen aldarrikapenetako asko, baina arrazoi asko ditugu lanean segitzeko, eta horregatik eskatzen dugu

toki bat izatea erabakiak hartzeko orduan.

Emakumeen jarduera pertsonen beharrei erantzutea izan ohi da, eta bizimodurako bideak jartzea. Hala ere, emakumeen ikuspegia, iritziak, esperientzia, jakituria, kultura eta egiteko modua ez da presente egon politikan. Azken urteotan, emakumeek gero eta toki handiagoa dute erakundeetan; nolana ere, ez dituzte beti betetzen botere guneak, eta bertan egoteak ez du bermatzen gure interesak ordezkaturik egotea. Ez daukagu nahiko ordezkaririk gure hiriaren eta gure lurraldearen erabakirik garrantzitsuenak hartzeko orduan. Hainbeste aipatzen den Parekotasuna ez da bakarrik emakumeok erakundeetan egotea: bermea eman behar du gure interes eta beharrak presente egongo direla erakundeetan eta kontuan hartuko direla kudeaketa publikoan.

Emakumeen bizimodua eta gizonena desberdinak dira; izan ere, sexuaren arabera banatzen dira eginbeharrak eta jarduerak. Horregatik, emakumeek izan behar dute emakumeen ordezkari, eta, horrela, gure parte-hartzeak bestelako kultura ekarriko du politikara.

Antolamendu politikorako edozein sistema demokratikotan, ezinbestekoa izan beharko luke gizartean elkarrekin bizi diren pertsona guztien ahotsak. Herritarren erdiak gara, eta badaukagu eskubidea gure bizitzan eragiten duten erabaki guneetan ordezkaturik egoteko. Lehen mailako herritarrak izatea exijitzen dugu, eskubidea baitugu pertsona guztien eskubideak definitzen parte hartzeko. Horregatik, erakundeetan sartu nahi dugu:

botoa emateko eskubidea lortu genuen, eta orain bozkatuak eta hautatuak izateko eskubidea eskuratu nahi dugu.

ZERGATIK PLAZANDREOK?

Mugimendu feministaren eta emakumeen elkarleen eraginari, ekarpenei eta aldarrikapenei esker, aldatzen hasiak dira gizarte honetan emakumeek eta gizonek dituzten rola, baina, oraindik ere, ez zaigu gustatzen bizi garen gizartea, oraindik ere indarrean baitaude emakumeen eta gizonen arteko hierarkia eta botere harremanak, bai esparru pribatuan eta bai publikoan, non emakumeek ez dugun herritar eskubide osoa betetzen:

- oraindik ere eragin, botere eta erabaki guneetan sartzea eta parte hartzea ukatzen eta oztopatzen zaigulako.
- oraindik ere ez dugulako prestakuntza, informazioa, ondasunak eta gizarte baliabideak aukera berdintasunez eskuratzeko modurik.
- oraindik ere gizonek baino lan prekarioagoak ditugulako, lan kualifikazio apala, kontraturik gabe, lanaldi murriztuak, etxeko eta etxetik kanpoko lana, gizarte segurantzarik gabe eta langabezia saria kobratzeko eskubiderik gabe, soldata txikiagoa eta abar.
- oraindik ere badirauelako emakumeen kontrako indarkeria matxista, kontrolatzeko eta behartzeko tresna gisa.
- oraindik ere emakumeen ardura delako etxeko lanak eta haurren eta menpekotasunen bat duten pertsonen

zaintza.

- oraindik ere gehiago eta modu larriagoan erasaten digutelako pobrezia eta bazterketa sozialak.

Uste dugu politika aldatu beharra dagoela, erakundeek ikasi behar dutela beste ikuspuntu batzuetatik begiratzen eta kudeatzen; azken batean, generoaren betaurrekoak jarri behar dituztela lehentasunak berriz aztertzeko eta ikusezina ikusarazteko.

Hau da gure mezua eta kanpaina honetan egingo dugun ahalegina: ALDATU IKUSPUNTUA.

Izan ere, uste dugu emakumeek asko daukagula esateko, proposatzeko eta aldatzeko. Eta proposatzen ditugun aldaketek zerikusia dute egitako berdintasuna lortzeko asmoarekin; egitako berdintasuna ikuspegi zabalagoz hartu behar baita, oinarria izanik horretarako egitura malguagoak eta parte-hartzaileagoak sortzea eta/edo egokitzea. Politika egiteko eta gizartearen partaidetza kudeatzeko bestelako modua proposatzen dugu.

Hautatuak izan nahi dugu, erakundeetan berdintasun politikak bultzatu ahal izateko; izan ere, uste dugu politika horiei esker lortuko dela, arian-arian, emakumeek sufritzen ditugun eta indarkeria sexistaren sorburu diren bazterketa egoerak desagertzea. Eta badakigu horrelako politikak agertzen direla hauteskunde programetan baina gero alderdiek beste lehentasun batzuk dituztela, beste kezka batzuk, eta haien gai zerrendetan azken

bihurtzen garela emakumeok.

Bestela egin nahi ditugu gauzak. ORAIN GURE TXANDA DA.

ZER PROPOSATZEN DUGU?

EGIATAKO BERDINTASUNA

Eskubide berdintasunak ez du ekarri aukera berdintasuna. Lege aldaketek ez dute islarik izan emakumeon bizitzaren arlo guztiak egiatan aldatzeko politika jakinetan.

Horregatik, ezinbesteko deritzogu berdintasun kontzeptu zabalagoa izateari: estrategia askotarikoak, aukera berdintasuna, ekintza positiboa eta mainstreaming-a, besteak beste.

Berdintasun politiketan mainstreaming estrategia berria erabiltzeak esan nahi du politika eta programa guztietan kontuan hartu behar direla emakumeen eta gizonen interesak, beharrak, asmoak eta aukerak. Hau da, esan nahi du ikuspegi global eta integralagoa behar dela, kontuan harturik emakumeen eta gizonen arteko harreman hierarkikoetan zerikusia duten eta eguneroko bizimoduaren arlo guztietan islatzen diren faktore ugariak.

Horrek esan nahi du genero ikuspegia erabili behar dela politikan nagusi den gai zerrendan; hau da, aztertu behar dela gaur egun emakumeok zergatik ez gauden erabaki guneetan, zergatik ez gauden jarduera politiko-sozialak erabakitzen diren tokietan eta zergatik ez gauden baliabideak, ondasunak eta abar sortu eta banatzen diren lekuetan.

Berdintasunaren kontzeptu zabalago

horrek, era berean, esan nahi du genero politikei eta emakumeon bizimoduan garrantzia eta eragina duten politikei lehentasuna eman behar zaiela.

Gainera, horrek berekin dakar bestela planteatzea erakunde, parte-hartze eta antolamenduen kultura: esan nahi du pertsonal politiko eta teknikoak prestaturik eta sentsibilizaturik egon behar duela politika orokorretan genero ikuspegia erabiltzeko, bai eta heziketa eta kultura oztopoak gainditzeko ere gai hauek tratatzeko orduan.

Beharrezko tresna eta teknikak eduki behar dira genero ikuspegia politika guztietan erabiltzeko, datuak sexuka bereizteko eta diagnostiko fidagariagoetan oinarritzeko. Era berean, ezinbestekoa da adierazleak diseinatzea, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, asmo eta beharren arteko desberdintasunak hobeto ezagutzeko. Lehentasuna eman behar zaie datuen sistematizazioari, ebaluazio prozesuei eta politiken eraginari. Hau da, udalak eta diputazioak proposatzen dituzten berdintasun politika eta arauekin batera, alde zurreko ebaluazioak egin behar dira, jakiteko politikek eta arauak zer-nolako eragina duten egiatan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagertzeko.

BERDINTASUNERAKO EGITURAK

Horregatik, uste dugu oraindik ere beharrezkoak direla gure lehengo proposamen asko: esaterako, berdintasunerako Zinegotzi Sailak eta Unitate administratiboak sortzea. Eskera hori jasota dago Berdintasunerako

Legean, baina gaur egun Gipuzkoako Foru Diputazioak oraindik ez du martxan jarri.

Guk uste dugu organismo horiek ez dutela area jakin bati atxikiak egon behar; hartara, area guztietan parte hartu ahal izango dute, zeharkako oinarrietatik abiatuak, gure interesak eta ikuspegiak toki eta lurralde esparru guztietan erabiliz.

Gure gizartearen arlo guztietan desberdintasuna eta bazterketa desagertzeko, lan hitzartua behar da, eta erakunde lokaletan jarduera area guztietatik proposatu behar da lan hori. Berdintasunerako Zinegotzi Sailak eta Foru Departamentuak sortzeak bermatu dezake area bakoitzeko pertsonal politikoa eta teknikoak parte hartzea, betiere aurrekontuetan beharrezko konpromisoak baldin badaude.

Gainera, egitura horietan pertsonal prestatu, espezializatu eta sentsibilizatuaz itatea nahi dugu, pertsonal nahikoa eta egonkorra, aurrekontua egokia itatea eta zeharkako berdintasun politikak martxan jartzeko bermea ematea.

BERDINTASUN PLANAK

Gure erakundeek berdintasun plan eta programak egitea nahi dugu, baina egiantan egitea nahi dugu. Diagnostiko fidagarrietan oinarritzea nahi dugu, emakumeen elkarteekin hitzartzea eta martxan jartzeko aurrekontuak eta pertsonala edukitzea. Gainera, ebaluazio edo segimendu tresnak itatea nahi dugu, modu gardenean aplikatzea eta martxan jarri ezean salaketa egiteko modua itatea. Baina gaur egun ez da hala gertatzen.

Gure inguruan azken urteotan onarturiko Berdintasun Planak ez dira kudeaketarako dokumentu baliagarriak, baizik eta paper erreza, sinbolismoz eta propagandaz beteak. Ez dute ekintzarik planifikatzen, ez eperik, ez baliabiderik, ez aurrekonturik.

GENEROA KONTUAN HARTUKO DUTEN AURREKONTUAK

Aurrekontuak arrazoizkoak, publikoak eta gardenak itatea nahi dugu, baina generoa kontuan hartzea ere nahi dugu.

Ez dago programa edo aurrekontu publiko neutrorik. Horregatik, lantzen eta prestatzen direnean, gogoeta egin behar dugu emakumeek eta gizonek gizartean betetzen ditugun espazio eta rolei buruz, politika publikoak eta bereziki aurrekontu politikak emakumeengan eta gizonengan dituzten eragin bereziei buruz.

Gure udalak eta gure Diputazioak kontuan hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen behar eta interes desberdinak, planak egin, kudeatu eta gastua eta sarrera publikoak ebaluatzeko orduan.

Helburua ez da emakumeentzako aurrekontuak lortzea. Helburua da gure erakundeen lehentasunak bestela lantzea, kontuan harturik emakumeen eta gizonen behar eta ekarpen desberdinak, eta ondasun publikoak bestela banatzea emakumeen zein gizonen beharrei erantzuteko.

EMAKUMEEN ETXE BAT

Emakumeen Etxe bat nahi dugu. Pentsatzen dugu proiektu hori herritarrek parte hartzeko tokia izango

dela, bai eta erreferentzia politiko eta kulturala eta euskarri fisikoa ere Aukera Berdintasunerako Ekintzak garatzeko. Erreferentziako tokia izango da udalerriko emakume guztientzat eta emakume elkarte guztientzat. Topalekua izango da Lilatoiarentzat, Emakumea eta Hiria foroarentzat, Auzoetako Emakumeen Taldeentzat, Literatura Jardunaldientzat... Kontseiluan donostiar emakumeek eskatu dute Emakumeen Etxea, eta Tabakalera jartzeko eskatu ere. Kontseiluaren Egoitza bertan egongo litzateke, eta herritarren parte-hartzea erraztuko litzateke.

EMAKUMEEN ARTEKO HITZARMENAK

Ezinbestekoa da, baina ez nahikoa, Berdintasunerako Emakume Departamentuak eta Zinegotzi Sailak sortzea, bai Udalean eta bai Diputazioan zeharkako politikak lantzeko. Ezin da ahaztu Emakumearen Kontseiluen garrantzia (bai udal kontseiluak eta bai lurraldekoak); modua eman behar diete emakumeen elkartei, gizarte zibilaren parte diren aldetik, erakundeekin harremanetan egoteko. Bai eta Emakumeen Etxearekin ere.

Egiturak (tresnak) sortzea beharrezkoa da, baina ez da nahikoa, ezerezean geratzen baitira borondate politikorik ez baldin badago helburuak lortzeko jarduerak egiteko.

Zinegotzi Sailek eta Departamentuek eragin txikiagoa dute baldin eta aukera politiko desberdinetako emakumeak prest ez badaude berdintasunerako eta ekintza positiborako politiketan ados jartzeko.

Emakumeen arteko hitzarmenak behar dira; gure ustez, gutxieneko batzuk adostu behar dira, ekintza positiborako planetan (udalerrietan eta diputazioan) landuko diren helburu jakinak lortzeko.

KUDEATZEKO OINARRIAK

Bestela kudeatu nahi dugu arlo publikoa. Ikusezina ikusarazi eta lehentasunak bestela definitu nahi ditugu; politikak behar berri eta zaharrak kontuan hartzea eta bestela planteatzea nahi dugu.

Baliabide ekonomiko lokalak arrazoizko eta elkartasunezko irizpideekin kudeatu behar dira. Kudeatzeko orduan, lehentasuna izan behar du herritarren behar oinarritzoei erantzuteak, proiektu erraldoien gainetik. Behar oinarritzokak dira: lana, etxea, gizarte zerbitzuak, hezkuntza, osasuna... Era berean, udalak eta Diputazioak bestela banatu behar dituzte beren baliabideak, betiere pertsonen artean dauden ekonomia, gizarte eta kultur desberdintasunak leuntze aldera, gure inguruan ez ezik gizarte globalean ere.

Hirietan eta herrietan bizi, lan egin eta dibertitzen gara pertsona asko, oso pertsona desberdinak. Uste dugu aniztasuna aberastasuna dela, eta hiriak eta herriak bertan bizi diren pertsona guztientzat izatea nahi dugu. Lan egingo dugu gure espazio guztiak ibiltzeko modukoak, seguruak eta atseginak izan daitezten.

Kultura, berriz, gizartearen aberastasunaren parte funtsezkoa da. Pentsatzen dugu erakundeek bermatu

egin behar dutela Euskadiko kultur eta hizkuntza aniztasunaren errespetua, hura aberasteko jardueraz sustatuz. Alde horretatik, Plazandreok plataformak euskara erabiltzea eta ikastea bultzatuko du erakundeetan eta gizartean, pertsona guztiek euskaraz bizitzeko duten eskubidea bermatzeko.

Garai historiko honetan, oraindik ez da hurbil ikusten gure herriak duen gatazka politikoaren konponbidea, nahiz eta pauso garrantzitsuak eman diren horretarako. Oraingo egoeran, Plazandreok plataformak babesa emango die inor baztertu gabe gizarte eragile guztiek, emakumeak barne, hitz eginez lorturiko adostasunean oinarritzen diren baketze ekimen guztiei.

Guk asko daukagu esateko bakea ekartzeko orduan; izan ere, ezin dugu indarkeria politikoaz hitz egin ahazten bazaigu emakume askok etxean, lantokian eta kalean sufritzen duten indarkeria. Arlo publikoko bakeaz hitz egin behar dugu, baina arlo pribatuko bakeaz ere bai.

Horregatik, babesa ematen diogu eta parte hartzen dugu AHOTSAK ekimenean; izan ere, politika egiten dugunean lortu nahi dugun horixe erakusten du: emakumeen parte-hartzea, emakumeen arteko hitzarmenak, elkarrizketa, adostasuna eta, jakina, gure bizitzatik indarkeria desagertzea.

GURE PROPOSAMENAK ESPARRUZ ESPARRU

- 01** HIRI PLANGINTZA, GARRAIOAK ETA ETXEBIZITZA
- 02** INGURUNEA
- 03** BIZIMODUAREN SOSTENGURAKO BEHAR DEN DENBORAREN ERABILERA. ENPLEGUA ETA FAMILIA LANA
- 04** POLITIKA SOZIALA
- 05** INDARKERIA MATXISTA
- 06** KIROLA
- 07** OSASUNA
- 08** HEZKUNTZA, KULTURA ETA EUSKARA
- 09** HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA INFORMAZIOA
- 10** PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA PAREKOTASUNA
- 11** ELKARTEEN SUSTAPENA



01 HIRI PLANGINTZA, GARRAIOAK ETA ETXEBIZITZA

Plazandreak taldean, bestelako hiri bat irudikatu nahi dugu, arlo pribatu eta publikoaren arteko zatiketa bertan behera uzten duena, eta gizon zein emakumeon egungo rol berrietara egokitzen dena. Antolamendu soziala egokitu egin behar da, eta etxe arloan konfinaturik dauden pertsonak pixkanaka lotura horretatik askatzea.

Zeren lurralde antolamenduak, azken finean politika ekonomiko, sozial, kulturala eta ekologikoaren adierazpena denak, demokratikoa izan behar du; hau da, herritarren partaidetza integratu eta ziurtatu behar du. Horregatik, antolamendu horrek emakumeon ikuspuntua kontuan hartu behar du, zeren horien bizipenak, interesak eta asmoak, hala nola horien kokapena gizartean, ezberdinak baitira. Emakumeak dira hiria gehien bizi dutenak, hiritik kanpo gutxien ateratzen direnak, bertako zerbitzu eta garraio publikoak gehien erabiltzen dituztenak.

Hiriek eta herriek belaunaldi eta kolektiboen arteko bizikidetzara errazteko ahalbideak jarri behar dituzte, betiere norberaren ezaugarriak errespetaturik. Hiri eta herrietan lan egin, bizi eta disfrutatu egiten dugu. Hirigintzako planek hori guztia gauzatzeko aldera egin behar dute. Plan horiek dira, pausoz pauso, hiri eta herriei itxura ematen dietenak, baina, hala ere, ez dituzte emakumeen interesak jasotzen.

Planen planteamendua eratzen duten premia prototipikoak alde batera uzteko

garaia da; bizimodu ezberdinak eta mota guztietako atazak kontuan hartzeko unea dugu. Kale izendegiak komunitatearen oroimena, historia eta haren nahia islatzen ditu. Nahiz eta emakumezko zenbait izen sartu den, uste dugu ez dela nahikoa. Kale eta plazei emakumezko izen gehiago ematea proposatzen dugu.

Gainera, garrantzizkoa da, hiriak eratzen duen sinbologia eremuan, populazioaren erdiak, emakumeak alegia, ordezkaturik egotea.

>PROPOSAMENAK<

1. Hirigintzako antolamendu planen diseinuan talde eta sektore guztien benetako partaidetza indartu eta sustatu egin behar da.

Hirigintza arloko foroak eta hiri partaidetzarako esperientziak sustatzea proposatzen dugu.

Ilido horretatik, hirigintza proiektuan, Emakumeak eta Hiria foroak eginiko proposamenak sartzeko eskatzen dugu.

Halaber, kaleei eta eraikin publikoei emakumezko izenak jartzea zein eskulturak paratzea proposatzen dugu.

Herritarrei erreferendum bitarteko kontsulta egitea beharrezkotzat jotzen dugu, interbentzioen garrantziak hala eskatzen duenean.

2. Ekipamenduak administrazioaren ardurapean herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak ditugu. Etxebizitzaren osagarriak dira, eta horien diseinuan herritarren eguneroko, aldizkako eta ezohiko premiak hartu behar dituzte

kontuan. Ekipamenduen azterketa eta ebaluazio, adin nahiz sexu taldeen arabera egin beharko dira. Ekipamendu horien kokapena eguneroko bizitzari eta auzoari lotu behar zaie, kostu gutxiagoz lortzen diren ekintza zehatz eta deszentralizatuak burutuz eta eraikuntza faraonikoetatik urrunduz.

Emakumeek, haien kontseiluaren bitartez, Tabakalera kokaturiko EMAKUMEEN ETXEA eskatu duten ekipamendu bat da. Hori oinarritzko ekipamendua dugu, erreferente kulturala eta politikoa eratzeaz gain berdintasun eta elkartegintza politikak sustatzeko.

3. Bizimodu berriek egungo etxebizitzaren eraldaketa eskatzen dute. Espazio eta etxebizitzaren banaketa planifikatzeko garaian, bizitzan zeharreko aldaketak kontuan hartu behar dira, premia eta bizikidetzaren mota guztiak errespetatuz. Azken produktuan, helburu gisa, heterogeneotasuna baitaratu behar da. Horrek ekartzen du etxebizitzaren mota ezberdinak eraikitzea, eta etxebizitzak pertsonentzat moldatzea (trenkada mugikorren bidez, esaterako).

Etxebizitzak konposta egiteko eta bizirik jartzeko egokitu behar dira.

4- Lan eremuko mugikortasun handiagoak eta bizitzaren aldi ezberdinek jabetzaren ikuskeraren aldaketa exijitzen dute, etxebizitzaren erabilera aldakor baten alde eginez. Errentako etxeak bultzatu behar dira, etxe berrientzat zein hutsik daudenentzat behar diren neurriak indarrean jarri.

Babes ofizialeko etxebizitzak guztiak

errentakoak izatea proposatzen dugu. Gainera, etxebizitzetarako ekimen publikoan sexua kontuan hartu behar da, pertsonen, emakumeak barne, bizitzako aro guztiei erreparatuz. Egoera larrian dauden emakumeei errenta sozialeko etxebizitzak eskuratzeko bidea erraztu behar zaie.

5- Garraioa, mugikortasuna eta erabilerraztasuna direla-eta, pertsonen bide mekanikoen gaintik lehentasuna izan behar dute. Jendearen igarobideak edo egonguneak ez dira ibilgailuek okupatuta izan behar. Gure kaleetan zehar oinez joateko eskubidea aldarrikatzen dugu, eta gure plazak disfrutatzeke eta topagune eta harremangune izateko eskubidea. Edozein kutsadura mota saihesten duten garraio publiko arin eta alternatiboak ezartzea proposatzen dugu, jendearen premietara egokituak daudenak, bereziki emakumeen premietara, zeren horiek baitira halakoak gehien erabiltzen dituztenak. Disuasio-aparkalekuen kopurua areagotu egin behar da Donostiako sarreretan, bertatik garraio publikoa erabiliz, hirigunerako konexioa izan behar duten aparkalekuen bidez. Horrekin batera, ordutegi eta ibilbideei buruzko informazio hobea eta fidagarriagoa zabaltzea proposatzen dugu. Ospitale eta anbulatorioetara joaten diren autobusei lehentasuna eman behar zaie, bertara joaten den jendeak mugitzeko arazoak izaten baititu maiz.

6- Maiztasuna areagotzea eta ordutegia gehiago zabaltzea astegunetan. Kutsagarria ez den garraioa sustatu nahi dugu; esaterako, bizikletak. Horretarako,

alde batetik, zabalera egokiko berariazko bideak eta, bestetik, horrelakoak sartzeko egokia den garraio publikoa sortzen jarraitu behar da, betiere herritarrak animatzeko garraio mota hori erabil dezaten. Donostian gaizki komunikaturiko auzoak lotu nahi ditugu, baita bidegorrien sarea zabaldu ere.

7- Oztopo arkitektonikoak kendu nahi ditugu (espaloiak beheratuz, esaterako) elbarrientzat eta umeen kotxe edo karrotxoa eraman behar dutenentzat.

Geltoki eta sarbide guneetan zailtasun handiak daude garraio publikoa erabiltzeko.

8- Herri eta hirietako kaleak eta plazak bertako biztanle eta erabiltzaileentzat berreskuratu nahi ditugu. Plaza berde eta arboladunen sorrera sustatu nahi dugu, plaza horiek baitira gure auzoetako bizitza eta harremanetarako gunea, orduen eta adin taldeen araberako erabilera ezberdinak izaten dituztenak, hain zuzen. Zementuzko plazak alde batera utzi behar dira, autoen aparkalekurako besterik ez dutelako balio; gainera, horrelako plazen erabilera disuasorioa izaten da, egoera desatsegin eta instalazio deserosokoak baitira (eserleku altuegiak dituzte, adibidez).

Lasai bizitzeko eskubidea oinarritzkoa delakoan gaude; horregatik, kutsadura akustikoa murriztea proposatzen dugu. Ihes-hodia, klaxona, elizetako kanpaiak eta abar.

9- Herritarren segurtasuna dela-eta, gure ingurunea alde askotatik bortitza dela deritzogu. Indarkeria murriztea

interesatzen zaigu, eta, horregatik, hezkuntzari, arreta sozialari, hirigintzari eta ingurumen arloari dagozkien neurriak proposatzen ditugu. Esate baterako: oinezkoentzako guneetan erabilera ezberdinak elkartzea, ordu jakin batzuetatik aurrera hutsik gera ez daitezen, eta toki horien erabilera seguruagoa izan dadin; hormetan leihoak ireki eta ibilbide seguruen diseinatzea, gaizki argitutako aldeak eta lur azpiko pasabideak kenduz.

Ibilbide argiak sortzea eta horiek erabiltzea aholkatzea, auzoen arteko igarotzea errazten dutenak, hirian ibiltzea seguruagoa eta lasaiagoa izan dadin.

10- Polizia dela-eta, udaltzaingoaren funtzioak komunitatearen zerbitzuan daude, udal ordenantzak betetzen direla bermatzeko, iragaitea antolatzeke eta herritarrak zaintzeko. Udaltzaingoak suzko armak eramatea ez zaigu egokia iruditzen, eta horren kontra gaude. Inguruko arriskua gutxitu beharrean areagotu egiten da. Defentsarako bide ez-bortitzak egon badaude; horiei buruz esperimentazio gutxi egin den arren, eraginkorrak direla esan dezakegu. Horregatik, polizia taldeetako partaideek gatazkaren ebazpenerako teknika ez-bortitzak ikas ditzaten proposatzen dugu.

02 INGURUNEA

Ingurunean eta ingurunetik bizi gara; horrek erakundeen eta gizartearen ardura handiagoa behar du. Aurrerakuntzak sortu eta erabili behar dira pertsonen premietara egokituta, eta,aldi berean,

sortzen diren ingurune naturalak zaindu eta lehengoratzeko aukerei errespetu handiz erreparatu. Aparatuek, garapen ez-zuzenak eta kontsumismoak ez digute ez zorientasuna ekartzen, ez pertsonen bizi kalitatea benetan hobetzen.

Gure erakundeen inguruneari buruzko politika kontzepzio barreiatu eta sakabanatzaile batetik sortzen da, parte-hartzailea eta prebentiboa ez den kontzepzio batetik. Antolamendu barreiatu bat da haren ezaugarria, zeinak ingurunearekin zerikusia duten gaiak erakundeen departamentuetan sakabanaturik egotea ekartzen baitu; garapen iraunkorreko hiri eta herriak lortzeko behar ditugun zeharkako ekimen komunak oztopatzen ditu.

Garapen iraunkorrek kapital naturala errespetatzea eskatzen du, eta hau exijitzen du: errekurtso materialen kontsumoa, hidrikoa zein energetikoa, berriztatzeko dugun ahalmena baino gutxiagokoa izatea. Horretaz gain, aniztasun biologikoa zaintzeak osasun publikoaren, uraren, airearen eta zoruaren kalitatea ekartzen du, betiere datozen belaunaldietako pertsonen, floraren eta faunaren bizitza babesteko. Erakundeen kudeaketak, erabakiek eta aurrekontuek garapen iraunkor horren oinarrietan izan behar dute funtsa.

Plazandreak taldeak ingurune politika parte-hartzaile, integratzaile eta prebentiboaren alde egiten du. Diputazioek eta Udalek ez dute oraindik elkarriketarik sustatu inguruneari buruzko gaien inguruan, talde ekologista eta herritar kaltetu eta abarrekin. Erakunde

horien jokoerak, ingurunea era orokor batean ulertu beharrean, arazo zehatzen ondorengo irtenbide puntualak eman besterik ez du egiten.

Arlo honetako politikak solidarioa, progresista eta hezitzailea izan behar du. Ingurune politika solidarioa, datozen belaunaldiekiko; progresista, ingurune naturalaren zaintza; eta hezitzailea, herritar arduratsuek hiri eta herri bizigarriagoen kudeaketan parte har dezaten.

Inguruneari zuzenean dagozkion eta herritarren adostasunik ez duten interbentzio handiak proposatu dituzte (AHT, errauste planta). Gai horiek publikoki eztabaidatzea eta haiei buruzko informazio fidagarri eta sakona herritarren eskura jartzea funtsezkoa da. Erabakiak hartu baino lehen, kontsultak sustatu behar dira.

>PROPOSAMENAK<

1. Ingurune konpetentziak sakabanatzearen aurkako antolamendu administratibo baten alde egitea, ingurunearekin zerikusia duten esparruetan zeharkakotasuna eta interbentzioak indartuko dituen.
2. Herritartasun orokorra kontuan hartzen duen erakunde funtzionamendua sustatzea, erakunde parte-hartzaileen sorrera eta zona ezberdinetan ekoauditoreak bultzatuz. Horren guztiaren mesederako, jendeari erabakiak hartzeko bideak emango dizkion informazio plan bat gauzatu beharko litzateke.
3. Tokian tokiko erakundeek, Agenda XXIari jarraituz, garapen iraunkorren

aldeko programak zehaztu ditzaten bultzatzea. Programa horiek hiri antolamenduaren oinarria izan beharko lukete, eta energia, airea, ura eta etxebizitzaren ingurukoak kontuan hartu beharko lituzkete.

4. Gaikako bilketa sistema bat mantentzea eta indartzea. Hiri hondakinak birziklatzeko sistema lortzea, zabortegeien desagerpena eta birziklagarri ororen aprobetxamendua sustatuz. Azken finean, hondakinen trataera ekologikoagoa eta gutxien kutsatzen duena bultzatzea.

Errauste plantari buruz: Hondakinen Plan Orokorra lantzeko orduan ez da parte hartzerik izan; horregatik, herritarren gaitzespen zabala jasotzen ari da. Gipuzkoan, materia organikoa hiriko zaborraren %33,36 da. Kopuru horri gehitzen badiogu papera eta beira, zaborraren %40 osatzen dutenez, honako ondorio honetara iristen gara: zaborraren %70ak azken isurtzeaz beste tratamendu bereizia izan lezake. Dena den, errausketa alde batera utzita, beste aukera batzuk BENETAN hartu beharko liriateke kontuan, hondakinak deuseztatzeko metodoak konparatuz.

5. Kutsatzen ez duten energien erabilera sustatzea eta lehenestea, udalerrietan ingurune politika egoki baten bidez abian jarriko direnak: erakundeetan bertan, papera birziklatua erabiltzea, eta erakundeen eraikinetan eta argiterian energia bide alternatiboak jartzea. Energiaren gastua saihestea.

6. Hiri eta herrietako gunek berdeak zaintza, egokitzea eta zabaltzea, apaingarri gisan ez baizik aisialdirako

eta kultura zona moduan indartuz eta parte hartzeko ekimenak sustatuz horien sorreran eta mantenamenduan. Erakunde eskudunek eraikitako azalera unitateko eta biztanleko aholkaturiko masa berdearen proportzioekin hirigintza kontrol zorrotza sustatzea.

7. Ibaietako ur emariak berreskuratzeko ekimenak sustatzea (Donostian: Urumea ibaia eta ubideak), eta baita horien aprobetxamendua: aisialdiko lekuak eta toki naturaletako arrain espezieak eta hegaztiak.

8. Beste hiri, erakunde eta organismo batzuekin, planeta babesteko eta bizirik iraunarazteko ekimenak sustatzea.

9. Biztanle guztientzat, eta bereziki ikasleentzat, hezkuntza aktibitateak antolatzea, betiere ingurune eta garapen iraunkorrari buruzko beste ikuspegi bat sustatzeko.

10. Herritarrei birziklatze lanak erraztea, hondakin birziklagarri ororentzako edukiontzia jartzea, eta bai hiriko eta bai herrietako zona guztietan konposta egiteko auzo proiektuak bultzatzea, denok eskuratzeko modukoak.

Erakundeek erraztu behar dituzte produktu toxikoen bilketa (pinturak, lakak, intsektizidak..).

11. Kiratsa eta osasunerako gas kaltegarrien emisioa eragozteko. Esaterako, Loiolako araztegiak.

12. Herri ingurunea babestea eta inguruaren oreka eta nekazari ekoizpena arriskuan jartzen dituzten azpiegitura handiak salatzea.

BIZIMODUAREN 03 SOSTENGURAKO BEHAR DEN DENBORAREN ERABILERA. ENPLEGUA ETA FAMILIA LANA

Bizimoduaren sostengurako, emakumeok egin ohi ditugun bi lan mota behar dira: batetik, soldatapekoa, eta, bestetik, familia lana. Soldatapeko lana desberdintasun eta prekarietate egoeran egiten dugu, gizonen aldean; eta familia lana, berriz, dohainik, inolako onarpenik gabe, ez ekonomikorik eta ez sozialik.

Emakume gipuzkoarren %41,42k ordainduriko jarduera bat dute, eta emakumeen langabezia tasa %11,3 da, gizonena baino askoz handiagoa (4,7). Emakumeek egin ohi dute laguntza pribatuko lana, oso baldintza kaskarretan: enplegu bera izanik, gutxiago kobratzen dute; lanaldi murriztua izaten dute, bai eta kualifikazio apala eta lan promozio eskasagoa ere.

Udalak eta Diputazioak ahal duten guztian bultzatu eta bermatu behar dute emakumeek enplegua lortzea berdintasun egoeran. Lehenik eta behin, horrela jokatu behar dute diru laguntzen bitartez obra, zerbitzu eta horniduren kontratatzaile eta zerbitzu finantzatzaile diren aldetik (geriatrikoak eta beste). Era berean, prestakuntzarako eta enplegu sustapenerako estrategiak lantzeko orduan, oso kontuan izan behar dute emakume sektore bakoitzaren egoera, hala nola adina, prestakuntza eta familia egoera. Orain arte, herritarrek ez dute jakin Berdintasunerako Legearen IV. Atalean jasotako Emakumeen Arartekoaren inolako jardueraren berri, nahiz eta hainbeste

famatu den haren sorrera.

Familia lanari esker betetzen da Donostiako eta Gipuzkoako herritarren bizi premien zati handi bat, eta emakumeek egiten dute ia osorik familia lana. Donostian bakarrik, 10 urtetik beherako 21.400 haur baino gehiago daude, eta 70 urtetik gorako 40.000 lagun baino gehiago. Adindu horiek hiriko herritarren %33 dira, eta haietako askok menpekotasun handia dute. Talde horiei ematen zaizkien kanpoko laguntza zerbitzuak ez dira nahikoa inondik ere, eta beti ematen dira oinarritzat harturik emakume bat ariko dela dohainik zainketa lana egiten.

Onartutako hiru lege berriek (EAEko Berdintasunerako Legea eta estatuko Berdintasunerako Legea eta Menpekotasun Legea) ez dute egoeraren mamia aldatuko, ez baitute segurtatzen bizimoduaren sostengurako sistema publiko unibertsalik. Gaur egun Udalak eta Diputazioak eskaintzen dituzten zerbitzuak (haur eskolak, eguneko zentroak eta abar) ez dira nahikoa ordutegi aldetik, hedadura aldetik eta abar. Eta oraingo legediak ez dio irtenbiderik ematen egoerari.

Gipuzkoako emakumeek 83,8 urteko bizi itxaropena dute, eta gizonek 74,9 urtekoa. Zaintza beharrean dauden eta bakarrik bizi diren emakumeak gehiago dira gizonak baino; askotan, ez dute lagunduko dituen edo beharrezko laguntza guztia eman diezaiekeen seniderik. “Zaintzeko eskubideak” ez du ezkutatu behar emakumeentzat hain garrantzitsua den beste eskubide hau: “zainduak izateko eskubidea”.

Emakumeek etxeko lana, zaintzeko lan hori egiten dutenez, doako irtenbidea ematen zaio laguntza behar horri; horrela izango ez balitz, diru asko jarri beharko litzateke fondo publikoetatik. Emakume batzuentzat, hori da beren egiteko bakarra; horrek esan nahi du menpekoak direla ekonomia aldetik, eta hori, jakina, ez da batere egoera onuragarria. Soldatapeko lana ere baduten emakumeentzat, lanaldi doblea gehiegizko zama bidegabea da.

Udalaren eta Diputazioaren politikak kontuan hartu behar du ugaltze lana ere badela eta, beraz, lan hori planifikatu beharra dagoela, irizpide hauekin: familiarentzako kanpo zerbitzuak sortzea eta emakumeen eta gizonen artean berdintasunez banatzea ardurak, erantzukizun partekatuan.

>PROPOSAMENAK<

- 1.** Prestakuntza moduluak sortzea, lan merkatuan (berriz) sartu nahi duten emakumeei motibazioa, informazioa eta orientabidea emateko.
- 2.** Prestakuntza eta moldaketa egokitzea bai lan merkatu eta bai emakume talde guztien behar, egoera eta ezaugarrietara, bereziki emakume etorkinen egoerara.
- 3.** Emakumeen sarbidea zabaltzea orain arte gutxiegi sartu diren lan arloetan.
- 4.** Prestakuntza egokitzea emakumeek modua izan dezaten lan merkatuan sartzeko, gaur egungo antolamendu eta teknologia aldatetak kontuan harturik.
- 5.** Sostengu baliabideak lantzea

informazioa eta orientabidea emateko eta ibilbide profesionalen sorrera eta garapena errazteko, betiere enplegua aurkitzeko prozesua pertsonalizatze aldera eta enplegu krisiak emakumeen artean duen eragina arintze aldera.

- 6.** Gizartea eta enpresak sentsibilizatzea eta haiek neurriak har ditzaten lortzea, emakumeak lan merkatuan berdintasunez sartzera errazteko.
- 7.** Haurtzaindegia edo haur eskola, eskola jantoki, ludoteka eta haur liburutegien sare handi bat sendotzea, modu malguan eta irekian erantzuteko herritar guztien beharrei (ordutegiak, kostuak, adinak, kokalekua, premiarik handiena dutenei lehentasuna emanez).
- 8.** Adinduentzako eta/edo ezinduentzako zerbitzuak handitzea (eguneko zentroak, egoitzak, etxe lagunduak edo tutoretzapekoak, harrera etxeak eta abar) eta etxeko laguntzarako zerbitzuak areagotzea, kontuan harturik laguntza sozial hutsa ez ezik aisialdiko jarduerak ere beharrezkoak direla.
- 9.** Zerbitzu alternatiboak eta berritzaileak sortzeko ekimenak indartzea, gizarte aldakor honen premia berriei erantzuteko (jantokiak, menpeko pertsonak zaintzeko egoera bereziak eta abar).
- 10.** Emakumeen kopurua eta gizonena parekatzeko irizpidea kontuan hartzea plantillak osatzeko orduan eta lanbide kategoriak banatzeko orduan, halako moldez non datu erabakigarri bat izango baita udal eta foru obra, zerbitzu eta hornidurak emateko lehiaketetan.
- 11.** Emakumeen lan baldintzak

kontrolatzea diru laguntza duten zerbitzuetan (geriatrikoak...).

12. Zerbitzu sozialek lan diskriminazioa atzematen dutenean lan agintariekiko elkarlana sendotzea, Lan Ikuskaritzak iker dezan eta Lan Agintaritzak jokabide diskriminatzaileak zigor ditzan.

13. Zeharkako politikak lantzea eta martxan jartzea, erantzunkizun partekatua ez baita enpleguari bakarrik dagokion zerbitzu; aitzitik, beharrezkoa da Udalaren eta Diputazioaren beste alor batzuek ere parte hartzea, hala nola hezkuntzak, kulturak, hirigintzak, zerbitzu sozialek eta ekonomiak eta abar.

14. Politikak lantzea gizonak familia lanean parte har dezaten eta beren erantzukizunak har ditzaten.

15. Diagnostiko benetako bat lantzeko erakundeetatik lan egitea (Udala eta Diputazioa), zerbitzu publiko eta unibertsal berriak sortu eta/edo egokitu beharra identifikatuz, menpekotasunari aurre egitea herritarren premiaz joz eta administrazio publikoen aurrekontuen barruko gastu publikotzat hartuz.

16. Donostiako eta Gipuzkoako herritarrak sentsibilizatzea eta ohartaraztea familia ez dela esparrurik onena menpekoentzako arreta eta zainketa emateko. Hartara, saihestu egingo litzateke emakumeek sentitzen duten presio soziala eta erantzukizuna.

17. Egoera horietan lan egiteari uko egin eta "intsumiso" egiten diren emakumeei babesa ematea, eta babes hori arlo instituzionalean, sozialean eta sanitarioan zabaltzea.

18. Emakume horien lana, lan esperientzia eta jakituria onar eta ikus dadin borrokatzea, eta bideak proposatzea esperientzia hori errentagarri izan dadin, pentsioak kobratuz, curriculumean egiaztatuz eta gizarte segurantzaren izen emanda egonez.

19. Sistema publiko eta unibertsala eskatzea zainketa kalitatekoa eta duina segurta dezan eta, gainera, langileen lan baldintzak kontrola eta erregulariza ditzan. Langileok parte hartu behar dute aipaturiko zerbitzuak sortu, landu eta martxan jartzeko prozesuan.

04 POLITIKA SOZIALA

Gaur egun, oraindik ere, egiturazko desberdintasuna dago gizonen eta emakumeen artean, eta horrek bazterketa soziala ekartzen die emakumeei.

Datuek erakusten dute oraindik mekanismo batzuek ez dietela uzten emakumeei modu eraginkorrean eta berdintasunezkoan eskuratzen baliabide sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalak.

Baina, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasunaz gainera, badaude bazterketa eragiten duten beste faktore batzuk ere: gutxiengo etniko batekoa izatea, sexu orientazioa, arraza, kolorea, ezintasuna, adina, gaixotasuna, menpekotasuna. Emakume horiek diskriminazio doblea sufritzen dute: diskriminazio multipleko prozesuak deitzen zaie horiei.

Pobreziari dagokionez, eragin handiagoa du emakumeen artean, eta, gainera, gizonak eta emakumeak ez dira

pobretzen modu berean. Fenomeno horri "pobreziaren feminizazioa" deitzen zaio, eta gizarte guztietan gertatzen da.

Badira faktore demografiko batzuk prozesu bereizi horiek esplikatzeko dituztenak; esaterako, Donostiako eta Gipuzkoako emakumeen artean bizi itxaropena luzeagoa izatea, horrek "zahartzaroaren feminizazioa" baitakar.

Era berean, nabari da jokabideak, familia egiturak eta balio sozialak aldatzen ari direla, eta gero eta gehiago direla banaketak, dibortzioak eta alargun geratuak; horrelakoek, oraindik ere, emakumea diru euskarririk gabe geratzea ekartzen dute, eta kontuan hartu behar da, gainera, gehienetan emakumeak arduratzen direla seme-alabez eta haiek mantentzeaz.

Gero eta gehiago dira familia mota berriak, batez ere pertsona bakarrekoak eta guraso bakarrekoak. Horrelako askotan (guraso bakarra ama denekoak), oso handia da pobrezia, eta erakundeek ez diete kasurik egiten.

Faktore ekonomikoek ere badute zerikusia: diru sarrera eskasak izatea, emakumeek sufritzen duten lan eta soldata diskriminazioaren ondorioz; gaizki ordaindutako lanak izatea; onartu gabeko lanak egitea; aldi bateko lanpostuak eta lanaldi murriztuko enpleguak areagotzea; emakumeen langabezia eta abar.

Diskriminazio horren oihartzuna zabaldu egiten da gizarte segurantzako erregimenetan eta laguntza sari sozialetan. Oinarrizko laguntza sariak jasotzen dituztenen erdiak baino gehiago

emakumeak dira.

Bestalde, emakume etorkinek gizon etorkinek baino migrazio prozesu eta egonaldi okerragoak izaten dituzte, hauek direla kausa: lan prekaritatea, baliabide falta, sare sozial formal eta informalk eza, arautze arazoak, familia batzeko problemak eta abar. Paperik gabeko emakumeak gehiago dira gizonak baino.

Emakume horietako askok, gure artera iristen direnean, prestakuntza akademiko eta profesional ona dute, baina oso enplegu jakinak eskaintzen dizkiete, oso baldintza kaskarrekoak (lanaldi amaigabeak, soldata ezin eskasagoak, prestigio sozial gutxi, mehatxu eta xantaia etengabeak beren egoera administratibo dela kausa, kontratuko baldintzak betetzeko kontrol gutxiago eta abar), eta femeninotzat jo ohi diren lanbideetan lan egiten dute (etxeko garbitzailea, dendaria, garbiketa industrialeko langileak, zerbitzariak eta abar); beraz, ezin diote etekinik atera beren prestakuntzari.

Era berean, ezinbestekoa da generoa kontuan hartzea zerbitzu sozialetan. Zerbitzu horien erabiltzaileetan, menpepeko pertsonen zaintzaileetan eta zuzeneko laguntzaren profesioetan gehienak emakumeak dira. Baina datuak aztertuz gero, ikusten da emakumeek baliabide sozial eta ekonomiko gutxiago jasotzen dituztela gizonak baino, nahiz eta emakumeei gehiago eragiten dien bazterketa sozialak.

Ezintasuna edo menpekotasuna oso larria ez denean, emakumeek beren kabuz edo beren sare informala laguntzaz konpontzen dituzte egoera horrek

sorturiko arazoak, eta gizonek baino gutxiago jotzen dute zerbitzu sozialetara.

Horretaz gain, badago joera soziokulturala zeinaren arabera baliabideak eta ardurak banatzeko orduan kontuan hartzen baitira estereotipo, rol eta ikuspegi sozialei loturiko arrazoiak, eta ez laguntza behar duen pertsonaren ezintasun funtzionalari loturiko arrazoiak.

Beraz, politika sozialek aurre egin behar diete erronka berriei, eta biziki garrantzitsua da udal eta foru politiken elementuak identifikatzea eta aztertzea, jakiteko zein elementu errazten dituzten pobrezia eta bazterketa sozialaren aniztasunari eta konplexutasunari erantzuteko politika sozialak, eta zein elementu mugatzen dituzten, betiere ikuspegi integrala eta genero ikuspuntua erabiliz.

>PROPOSAMENAK<

1- Ezabatzea emakumeen honako irudi eskusiboa: talde ahula, identitate bakarrekoa, jarduerarik gabea, menpekkoa, babeslea, laguntza politikak eta politika paternalistak legitimatu eta martxan jartzen dituzten biktima pasiboak.

2- Emakume horien baldintzak eta egoera hobetzeko lan egitea, ez bakarrik beren premia praktikoenak eta oinarritzkoenak hobetuz (etxe baldintzak, enplegua, osasuna eta abar hobetzea), baizik eta martxan jarriz emakumen horien interes estrategikoetan eragiteko tresnak eta egiturak. Haien egoerak lantzea; bidea jartzea ondasun eta baliabide ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak

eskura ditzaten, informazioa izan dezaten, emakumeek oro har sufrizten duten menpekotasun egoeraz jabetu daitezten bai maila pertsonalean eta bai kolektiboan. Azken batean, parte hartzeko bideak urratzea, emakumeen jabetzea bultzatzeko.

3- Eskubide sozialak eta politika unibertsalak onartzea, gizonek eta emakumeek pareko aukerak izan ditzaten ondasun eta balibide sozialak eskuratzeko orduan.

4- Genero ikuspegia erabiltzen hastea, hau da, gizonen eta emakumeen interesak, beharrak eta asmoak kontuan hartzea programak, baliabideak eta zerbitzuak landu eta martxan jartzeko orduan. Udal eta foru erakundeak sortzea, zerbitzu sozialetan genero ikuspegia egiaz kontuan hartzen dela segurtatzeko, eta generoak programetan eta jardueretan duen egiazko eragina neur dezaten.

5- Politika sozial integralak martxan jartzeko eskatzea eta horretarako lan egitea, sektore sozial guztiak kontuan hartuak izan daitezten, beren ezaugarri, behar, interes eta eskaera berezien arabera.

6- Zerbitzuetan (esaterako, etxeko laguntza eta beste) onartua izateko baremoetan argi eta garbi adieraztea atzemandako gaitasunik ezak zenbateraino diren kultura-hezkuntzak sortuak edo funtzionalak.

7- “Desfamiliarizazio” kontzeptua proposatzen dugu, hau da, zerbitzuak eta eta laguntza ekonomikoak eskuratzeko eta neurtzeko “banakoen eskubideen” arabera.

05 INDARKERIA MATXISTA

Guretzat, indarkeria matxista emakumeek eta gizonek bizi dugun desberdintasun egoeraren adierazgarri bortitza da. Argi dugu indarkeria matxista ezabatzeke benetako berdintasun politikak gauzatu behar direla, emakumeen egoera esparru guztietan hobetzeko.

Horrez gain, beharrezkoak dira arreta programak eta larrialdietarako kalitatezko zerbitzuak, indarkeria egoera konkretuei aurre egiteko. Orain arte, arretarako programa horiek zerbitzu sozialen mende egon izan dira, emakumeen egoera beste talde batzuenarekin parekatuz: droga menpekotasuna, pobrezia, gizarteratze arazoak eta abar.

Gure ustez, berdintasun departamentuek izan behar dute eskudunak emakumeen kontrako indarkeriaren esparruan, politika guztien diseinu eta jarraipena egin dezaten, eta erantzuna politikoagoa eta integralagoa izan dadin, biktimitasuna arinduz.

Horrela, indarkeria mota horri aurre egiteko erabiliko diren baliabideak espezifikokoak izango dira emakumeentzat, nahiz eta beste zerbitzuekin koordinaturik egongo diren.

Udalak emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko diagnostikoa eskatuko du, gerora erakunde arteko koordinazioa eta arreta hobetzeko balioko duen udal protokoloa idatzi ahal izateko, Berdintasunerako Legeak dioen bezala. Sail guztien parte-hartzea bilatuko da protokolo hori idazteko, foru mailan

Genero Indarkeriaren Aurkako Prebentzio eta Arreta Planean gauzatu dena.

>PROPOSAMENAK<

1. Genero indarkeria jasan duten emakumeei arreta emateko zerbitzu bateratua, berdintasun erakundeen menpekoa.
2. Harrera etxeak, arreta integral eta espezializatuarekin, babesik ezarekin eta bigarren mailako biktimizazioa amaitzeko.
3. Indarkeria matxistaren inguruko udal diagnostikoa idaztea, udalerrri mailako errealitatea ezagutzeko eta lehentasuna duten lan ildoak identifikatzeko.
4. Arreta eta koordinazioa hobetzeko protokoloa idaztea, talde profesional guztiak eta herritarrak tartean sartuz, sentiberatasuna handitzeko eta emakumeek babesia eta elkartasuna senti dezaten.
5. Foru Aldundiak indarkeria matxistaren kontrako plana onartzea, foru zerbitzuak berritu, egokitu eta hobetzeko.
6. Aurrekontu sail nahikoak izatea, arazoaren tamainarekin (giza eskubideen urraketaekin) bat datozenak.
7. Hezkidetza bultzatzea eta gizonak arazoaren konponbidean inplikatzeko, harreman afektibo parekideak sustatzeko.

06 KIROLA

Kirolak ongi-izate pertsonala eta soziala ekarri behar du; bizikidetzarako eta hezkuntzarako lan tresnatzat jotzen dugu. Kirolari dagokionez, oinarrizko printzipioa

herrarren ekintza fisikorako sarbidea eta praktika bermatzea da, bereziki emakumeei dagokienez.

Plazandreak taldearentzat, kirola biztanleen osasuna hobetzen laguntzen duen ekintza fisiko modua da; izan ere, lanbide askok dakarten sedentarismoari aurre egiten dio, norberaren gorpuztasunaren kontzientzia hartzea eramaten du, ongi-izate psikikoa laguntzen du, estresa eta oldarkortasuna gutxitzen du, eta hainbat patologia izateko arriskua gutxitzen du.

Kirola, aldi berean, hezkuntza, sozializazio eta bizikidetzarako lan tresna eraginkorra da. Izan ere, elkartzunean heztea ahalbidetzen du; konstantzia, norberaren esfortzua, mugak eta lorpenak lantzeko baliagarria da; posible egiten du beste pertsonekin eta gure ingurunearekin elkartzea eta beste kultura eta herrialdeekin bizitzea.

Kirol ekintzetan emakumeen parte-hartzea gizonezkoena baino txikiagoa dela kontuan harturik, lan egingo dugu kirolean sexismoa desagertu dadin, eta ez dugu diskriminatzaileak edo sexistak diren kirol ekintza, lehiaketa edo ekitaldietan parte hartuko. Emakumeen bizitzaren aldi guztietan kirol ekintza jarraitua bermatzen duen ekintza positiborako politika bultzatuko dugu.

>PROPOSAMENAK<

1- Emakumeak kirol ekintzetan parte har dezaten sentsibilizatu eta motibatzea, eta parte-hartzea erraztuko duten

bideak eskaintzea: emakumezkoen kirol praktikara bideratutako baliabideak handitu eta lehendik badauden emakumezkoen kirol taldeak ekonomikoki laguntzea.

2- Adin guztietarako egokitutako kirol programak garatzea. Kiroletan eta ikastetxe kanpoko ekintzetan nesken parte-hartzea bultzatzea, eta honako helburu hau laguntzeko erreferentzia femeninoak areagotzea. Emakume heldu eta nagusietan ekintza fisikoa bultzatzea, beraien beharrei egokitutako ordutegiak eskainiz.

3- Emakumeen kirol lehiaketei publizitatea ematea eta honako hauek euskarritzea. Emakumeen kirol praktika jendaurrean ikusaraztea, erreferentzia sozialak eratzeko.

4- Legeari jarraituz, diskriminatzaileak diren kirol ekintzei, emakumei eta gizonei sari ezberdinak ematen dizkieten entitateei inolako diru laguntzarik ez ematea. Emakumezkoak dekoraturako figura gisa erabiltzen dituzten entitateei berdin, irabazleei musuak eta sariak edo partidetak atsedendian “animatzaile” moduan azaltzen diren kasuetan.

5- Pertsonen bizipen integratzaile eta orekatzaileak lantzeko ekintzak Zerbitzu sarean eta Kirol Patronatuan barneratzea.

6- Kirol eskaintza handituz, kirol instalazio balio-anitzekoak eraikitzea horrelakorik ez duten auzoetan. Izen-emate tasak eta kuotak aldatzea, kirol instalazioetara herritar guztiak hurbil daitezten bermatuz.

7- Emakumezkoek 14-18 urte bitartean kirola bertan behera uzten dutenez

gero, adin tarte honetan emakume gazteak kirolaren garrantziaren inguruan sentsibilizatzea eta motibatzea.

8- Emakumezkoentzako kalitatezko kirol eskaintza garatzea, parte-hartze kirolean zein errendimenduan.

9- Eliteko kirolariak indartzea eta euskarritzea, neskek eta emakume gazteek erreferente sozialak izan ditzaten.

07 OSASUNA

Osasun publikoaren zerbitzua medikuntza terapeutikora mugatzen da; izan ere, osasuna gaixotasunik eza da harentzat. Osasun instituzioek horrelako ikuspegi mugatua dute osasunari buruz. Guk, aldiz, modu zabalagoan ulertzen dugu osasuna. Osasunaren Mundu Erakundearen definiziotik abiatuz, Plazandreak taldearentzat hau da ongi-izate fisiko, psikiko eta soziala: herritarrek pairatzen dituzten gai ugarien gestore izan behar dute udal eta foru instituzioek. Gai honi dagokionez, gauza asko dituzte egiteko; pertsonen ongi-izatea handiagoa izaten lagundu dezakete, hiri eta herri osasungarriak garatzen.

Osasun eta gizarte sistemak administratiboki eta finantzatan independenteak dira, bien arteko ekintza osagarria eta harmoniko posible egingo duen koordinazio funtzionalerako organorik gabe. Gizarte eta osasun koordinazio falta horrek kalte egiten die pertsona askori; izan ere, kolektibo askoren arazoek hurbilpen global eta zentzuzkoa behar dute. Horregatik,

Plazandreak taldekook instituzioen arteko koordinazioa proposatzen dugu, behar zehatzak dituzten multzoei modu bateratu batean erantzuna eman ahal izateko; esaterako, patologia kroniko eta mugimendu mugatua duten pertsonak, ohean egon behar duten pertsonak, mugimendu ahalmena mugatua duten adineko pertsonak, errehabilitazioa behar duten pertsonak eta abar.

>PROPOSAMENAK<

1- Ohitura higienikoen garapena bultzatzea. Ohitura kaltegarriak baztertzea (gehiegizko lana, estresa) eta ohitura onuragarriak eskuratzea (ariketa moderatua, modu egokia atsedean hartzea, erlaxatzea, irribarre egitea); bereziki, elikadurari dagokionez bultzatu nahi dira ohitura osasungarriak. Honako hau osagarri izan beharko litzateke elikagaien pilatze, salmenta eta kontsumoaren baldintzen azterketarekin eta kontrol neurri eraginkorrek.

2- Batez ere, emakumezkoen artean, beraien bizitzaren eboluzioan beraien gorpuztasunaren bizipen baikorra bultzatzeko. Gure gorputzen kontrola berreskuratu behar dugu, eta bere forma eta funtzioei balioa eman, bere baitan duten balioagatik, eta ez modak eta publizitateak ezartzen duten ereduagatik. Publizitatearen egungo presioek emakume askorengan eragin ezezkorrak dituzte; eredu idealak jarraitzen itsututa, bulimia eta anorexia moduko patologiek eraginda ikusten dute beren burua gero eta emakume gehiagok.

3- Adin eta kolektibo guztientzat sexualitate hezkuntza jarraituen ikastaroak bultzatzea eta antolatzea. Sexualitatea plazeraren bizipena dakarren pertsonen dimentsio moduan ulertzen da, giza psikologiaren ezagutza, halaberrez heterosexuala ez den moduan. Pertsonen aniztasun sexuala modu positiboan baloratu behar dugu, aberasten gaituena.

4- Pertsonen arteko erlazioak hobetzeko talde lanean hezkuntza ekintzak bultzatzea. Ekintza horiek pertsonen arteko erlazioetan hobekuntzak eskainiko dituzte, komunikazio teknikak bultzatuz, gatazkak konpontzeko ebazpen ez-bortitzak, kooperazioa eta abar.

5- Besteenganako eta norbanakoarenganako errespetuaren inguruko hezkuntza proiektu globalaren alde lan egitea, norbanakoaren eta batez ere emakumeen autoestimua handitzeko ekintzak bultzatuz.

6- Osasuna bultzatzen duten baldintzak indartzea eta osasuna zalantzan jartzen dituztenak ingurune fisikotik kentzea: kontsumorako uren kontrola, hondartza eta igerilekuena, zaraten inguruko normatiben betetzea eta abar.

08 HEZKUNTZA, KULTURA ETA EUSKARA

HEZKUNTZA

Erakundeek egitasmo zehatzak bultzatu behar dituzte hezkuntza arloan.

Lan egingo dugu hezkidetzat tokiko erakundeetan erabat txertatu dadin.

Horretarako, udalerrri mailako hezkidetzat mahaia eratuko dugu, udalaz gaindiko

erakundeekin elkarlana sustatzeko eta genero ikuspegia ikastetxeen programetan sartzeko. Estrategia horren bidez, udalerrrietako ikastetxeetara lagunduko diegu Eusko Jaurlaritzak bultzatutako berdintasunerako Legea betetzen.

12 eta 18 urte bitarteko gazteentzako hezkuntza sexuala finantzatu du udalak, betiere hezkuntza ez-sexista, norberaren gorputzaren ezagupen eta errespetuan oinarritua, horixe baita modurik onena sexu erasoak eta genero indarkeria saihesteko.

Udaleko Berdintasun Zinegotziak hezkuntza eta hezkidetzat ekimenak jarriko ditu martxan gazteentzat. Ikasturte bakoitzeko gai bat landuko da (hirigintza, indarkeria, immigrazioa...), genero ikuspegia eta gazteen arduraren publikoa indartzeko helburuarekin.

Indarkeria amaitzeko eta gatazkak modu bakezalean konpontzeko hezkuntza bultzatuko dugu, jendarteko elkar ulertzea bideratuko duten komunikazio teknikak landuz, jarduteko modu hori erakunde publikoetan txertatzea baliagarria dela uste dugulako.

Bai ikasleentzat eta bai helduentzat hiritartzeko eta bideetan zehar ibiltzeko hezkuntza programak sustatuko ditugu, jendearen autonomia eta erantzukizuna indartzeko.

Euskarak ere lehentasuna izango du. Kontseiluaren irizpideei jarraituko diegu udalerrien hizkuntza politikari dagokionez, eta sailen arteko ekintzak bultzatuko ditugu, epe zehatzekin eta baliabide ekonomiko nahikoekin. Urteko,

udal aurrekontuaren %2 euskararen normalizaziorako politiketara bideratuko dugu, gaztelerarekin parekotasuna lortzeko eta euskararen ezagupena eta erabilera bermatzeko.

>PROPOSAMENAK<

1. Hezkidetza bultzatzea hiri eta herrietan. Hezkidetza mahaiak eratzea ikastetxeei Eusko Jaurilaritzaren Berdintasunerako Legea betetzen laguntzeko. Hezkidetzari buruzko prestakuntza jaso nahi duten irakasleei bekak ematea.
2. Hezkuntza sexual ez-sexista bultzatzea 12-18 urte bitarteko gazteentzat.
3. Hezkuntza programa bereziak sustatzea genero ikuspegitik.
4. Udalak eta Foru Aldundiak gatazken konponbide bakezalerako hezkuntza bideratzea.
5. Haurreskola berriak sortze eskaera guztiari erantzuteko eta horien ordutegiak malgutzea bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko.
6. Bideko eta herritartasun hezkuntza programak bultzatzea ikasle eta helduentzat.
7. Euskararen normalizazioaren alde eta biztanleriaren hizkuntza-eskubideen errespetuaren alde lan egingo dugu. Horretarako, besteak beste, administrazioa euskalduntzeko neurriak hartuko ditugu.

KULTURA

Guretzat, kultura emakumeen eta gizonen bizitzako arazoak konpontzeko

ezagupenek, ohiturek, balioek eta moduek osatzen dute, eta horiek etengabe aldatzen dira. Guretzat, udalerrriak kultura sormenaren ardatz garrantzitsuak dira.

Emakumeek kulturaren sortzaile eta hartzaile izan behar dute; horregatik, gure kultura politikak emakumeen parte-hartzea bilatuko du kulturaren kudeaketa eta ekoizpenean, zentzu zabalean. Hiriko azpiegitura kultural berriek (Tabakalera, Victoria Eugenia, San Telmo) ezin diete ez ikusiarena egin emakumeen arazo eta ekarpenei. Horregatik, orainaldiko eta aspaldiko memoria berreskuratzeko programak jarriko ditugu martxan, lehiaketa eta ikerketa beken bidez, eta obra berriak erosteko kuotak ezarriko ditugu.

Arte eta kultura egitasmo berritzaileak eta kritikoak babestuko ditugu, estereotipo eta kliseetatik urrun, herritarrengan hausnarketa eta pentsamendu kritikoa zabalduko dutenak. Udalak eta Foru Aldundiak ez diete diru laguntzarik emango emakumeak baztertzen dituzten taldeei, Berdintasunerako Legeak dioen bezala.

Udal jaien prestaketan, herritarren parte-hartzea bilatuko da, kolektibo espezifikoen beharrak kontuan hartuz. Ez da onartuko emakumeak eta beste kolektiboak gutxien edo erasotzen dituen adierazpenik.

Alde horretatik, Irunen eta Hondarribian alardea publikoa eta mistoa izan dadin lan egingo dugu, Berdintasunerako Legea betez eta emakumeen bazterketa eta herritarren banaketa eragiten duten aitzakia juridikoak alde batera utzita.

Interneten sarbidea izatea eskubide orokorra dela uste dugu, eta, hortaz, dohainikakoa izan behar duela.

>PROPOSAMENAK<

1. Emakumeen partaidetza bultzatzea kulturaren kudeaketa eta ekoizpenean, eta kultura programen osaketan herritarren partaidetza sustatzea.
2. Tokiko eskaintza kulturaletan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea. Publizitate sexista eragozteko foru eta udal tokietan.
3. Emakumeen orainaldiko eta iraganeko memoria berreskuratzeko programak martxan jartzea: lehiaketak, bekak eta obren erosketan kuotak ezartzea. Emakumeen inguruko dokumentazio zentro bat zabaltzea.
4. Liburutegi eta kultur etxeetarako aurrekontu sail handiagoak bideratzea. Oraindik kultur etxerik ez duten herri eta auzoetan kulturuneak sortzea.
5. Emakumeak bazterten eta gutxiesten dituzten taldeei diru laguntzarik ez ematea.
6. Jaien programazioan jendearen parte-hartzea eta genero ikuspegia bultzatzea.
7. Interneteko dohainikako konexioa bermatzeko, Wimax antenak ezarriko dira auzoetan. Ordenagailuak erosteko eta alfabetatze digitala egiteko laguntzak.
8. Kulturako eta jendaurreko ekitaldiak emakumeen beharretara egokitzea. Zerbitzu sozialak martxan jartzea,

emakumeek ekitaldi kulturalak gozatu ahal izan ditzaten.

9. Lehendik dauden kultura taldeei laguntza ematea. Kultura elkarteak sustatzea. Diru laguntzak eskatzeko tramiteak eta hiriko azpiegiturak erabiltzeko tramiteak erraztea.

10. Euskararen aldeko apustua egitea kultura berri honen hizkuntza izan dadin.

09 HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA INFORMAZIOA

Plazandreok taldeak beti esan du herritarrek parte hartu behar dutela erakunde publikoetan hartzen diren erabakietan. Aspaldidanik, Foru Aldundiaren eta Udalaren eskumen atal guztietan kontseilu parte-hartzaileak sortzeko eskakizuna egin genuen. Azken urteotan honelako ekimenak hedatu egin dira gure Udalean eta, askoz ere gutxiago izan arren, Foru Aldundian ere. Dena den, esperientzia hauek ez dira nahikoa izan, ez baitute bermatu benetako demokrazia parte-hartzailea.

Gehienez, kontsultarako eta informazioa hedatzeko espazioak erraztu egin dira, baina horiek lortu dutena Udaleko eta Foru Aldundiko gobernuen legitimazioa izan da, eta ez herritarren behar eta interesek eskatzen duten gizarte aldaketak. Udalaren aldetik, batez ere, egiturak sortu eta gogoetarako eta parte hartzeko espazioak eratu dira. Horien artean gutxi batzuek soilik ahalbidetu dute herritarren eragina politika publikoetan.

Horrek guztiak eragin ezkorra izan du herritar aktibo eta parte-hartzaileengan, praktikan ondorio mugatuak dituzten

espazioek asperdura, nekea eta interes falta eragiten baitute. Erakundeek maiz ahaztu egiten dute bilera, parte-hartze une edo proposamen bakoitza bideratu ahal izateko lagun eta talde askok euren denbora eskuzabaltasunez ematen dutela, dohanik eta inongo errekonozimendurik jaso gabe.

Horregatik, indarrez aurrera jarraitu behar dugu, herritarren partaidetza Udalaren kudeaketaren bigarren mailako osagai izatetik oinarritzko ardatza izatera pasa dadin.

>PROPOSAMENAK<

1- Udalaren eta Foru Aldundiaren eskumen atal guztietan gizartearen partaidetza iraunkorra bermatuko dituzten egiturak sortzea.

2- Beharrezkoa bada, indartzea eta berregituratzea lehendik dauden espazioak baliabideak eskainiz (ekonomikoak, materialak edo giza baliabideak) eta merezi duten garrantzia emanez.

3- Foro horietan emakumeen presentzia sustatzea, ordutegi eta bestelako baldintzetan erraztasun egokiak erabiliz.

4- Mekanismoak eratzea Udaleko eta Foru Aldundiko gobernuen arduradunek gizarte zibiletik datozen proposamen zehatzak aintzat har ditzaten. Ulertarazi behar da proposamen bakoitzaren abiapuntuan norbaiten ahalegin eta denbora dagoela eta horregatik begirunea merezi duela, idatzizko erantzun egokia jasotzeko gutxienez. Gobernukide eta

oposiziokideez osatutako kontrolerako batzordea sortzeko proposamena egiten dugu.

5- Eztabaida eta erabaki politikoko guneak (Udalaren osoko bilkurak, Batzar Nagusiak) herritarrengana hurbiltzea. Horretarako, publizitate eta gertutasun neurri berriak ahalbidetu beharko liriateke, gai zerrenda egokiak aurkeztuz kronograma zehatz eta guzti, herritarrak soilik eztabaiden zati batera joan ahal izateko. Gainera, noizean behin bada ere, betiko ordutegietatik at osoko bilkurak egin beharko liriateke.

6- Herritarren kontsulten edo erreferendumen erabilera hedatzea populazioaren zati batek eskatzen duen erabakietan.

7- Udalaren eta Foru Aldundiaren jardueri buruzko informazio osoa zabaltzea Interneten bitartez, eta ez soilik gaur egun ematen dena.

8- Teknologia berrien erabilera sustatzea, Udalean eta Diputazioan erantzukizun politikoak dituztenek modua izan dezaten herritarren iradokizunei eta proposamenei.

10 PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA PAREKOTASUNA

Berdintasunaren gaineko arauak hauteskunde hauen ondorioz erazten diren erakundearen partaidetza izango direla bermatuko dute. Dena den, beste tokietan gertatu den bezala, hauteskunde zerrendetan emakume gehiago egoteak ez du ekarri gure erakundearen botere guneetan emakumeen paper politikoa handitzea. Hala, Udalak osoko bilkura

paritarioa izango duen arren, horrek ez du esan nahi parekotasuna gobernu taldean, batzordeetan edo izendapen karguetan beteko denik. Foru Aldundiaren kasua guztiz garrantzitsua da, orain arte gizonetzkoen gehiengo nabaria izan baita bertan. Oraingo legeak bultzaturik, Udalak eta Foru Aldundiak osatzen dituzten epaimahaietan ere parekotasuna bete behar da.

Plazandreak taldearentzat parekotasuna ez da bakarrik emakume eta gizonen presentzia orekatua izatea botere guneetan. Horretaz gain, parekotasunak eskatzen du sexu bien beharrak eta interesak kontuan hartuko direla politika publikoak erabakitzeko unean. Horretarako, arlo guztietako arduradun politikoen genero ikuspegiaren inguruan sentsibilitate eta prestakuntza izan behar dute, bereizkeria bultzatzen duen erabakirik har ez dezaten.

>PROPOSAMENAK<

1- Berdintasun legea gauzatzea betebete, Udal eta Foru Aldundiko ordezkariak nahiz izendapen kargu guztietan emakume eta gizonen ordezkariak orekatua bermatuz.

2- Udalak eta Foru Aldundiak eratzten dituzten epaimahaietan (kontratazio edo sariak emateko eta abar) parekotasuna bermatzea.

3- Aukera berdintasunaren inguruan prestakuntza ekintza berezia antolatzea izendapen politikoko edo bestelako karguetarako.

4- Erakundeen interbentzio arlo bakoitzean neurri eta praktika egokien

gida egitea, arduradun bakoitzak bere agintaldian betetzeko konpromisoa har dezan.

11 ELKARTEEN SUSTAPENA

Elkarteen mugimendua gizarte zibilaren oinarritzko osagaia da. Erakundeek mugimendu hori sustatzen badute, parte-hartze politikoa eta demokraziaren funtzionamendurako lana egiten ari dira. Donostian eta Gipuzkoan talde eta elkarte ugari dago, eta horietan gizartea hobetzeko doan lan egiten duen herritar mordoak biltzen da. Erakundeek ezin dute errealitate hori ukatu, elkarten mugimendua bultzatzeko parte-hartze sinbolikoa bideratzen duten egiturak sortzea ez baita nahikoa. Beren prestakuntza, kudeaketa eta proposamenak babestu behar dira. Beren funtzionamendurako baliabideak eskaini. Sarean lan egiteko erraztasunak eman. Beren ekarpenak erakutsi eta aintzat hartu behar dira.

Emakumeen elkarteak oso garrantzitsuak dira gure egitasmoan. Erakundeek talde berriak sortzeko erraztasunak eman behar dituzte, bereziki emakume gazteen taldeak, espazioak eta parte hartzeko baliabideak eskainiz. Horrela, egiturak eta bestelako mekanismoak eratu behar dira emakumeen taldeen eta erakundeen arteko elkarrizketa eta harremana bideratzeko. Udalaren kasuan, Emakumeen Kontseiluaren izaera eta bidea indartzea lehentasuna izan behar litzateke. Foru Aldundian, berriz,

premiazkoa da berdintasunaren inguruko parte-hartzerako eta kontsultarako egitura sortzea (Batzar Nagusiek onartu zuten arren azken agintaldian gauzatu ez den erabakia, hain zuzen ere).

Gure hirian eta Gipuzkoan emakumeen topagune eta trukerako tokia egotea guztiz garrantzitsua da, Emakumeen Etxea alegia.

>PROPOSAMENAK<

1- Elkarteak bultzatzea, baliabideak handituz eta horien erabilera malgutuz. Erakunde eta elkarten arteko harremana ez da diru laguntzetara mugatu behar, betiere epe eta bestelako prozedura korapilatsuen menpe. Bide berriak bilatu behar dira, proposamen interesgarriak bideratu (eta finantzatu) daitezen, epezkantpo bada ere.

2- Elkarten jarduerak eta ekintzak erakustarazi behar dira, hedatze iraunkorrerako hainbat bide erabiliz (webguneak, aldizkari elektronikoa, informazio orriak, eta abar)

3- Udalaren Emakume Kontseilua indartzea. Erakunde hori denbora luzean aritu izan da, eta orain arte lanean ari diren gehienak nekatuta daude. Hala ere, gure etengabeko ahaleginak oraindik lana egiteko prest gaudela erakusten du; goazen, ba, aurrera!


4- Foru Aldundiko Berdintasunerako Kontseilua eratzea eta behar dituen baliabideak ematea (aurrekontua, langileak), botere publikoa eta elkarten arteko tresna eraginkor eta sendoa izan dadin.

5- Emakumeen elkarten protagonismoa erraztea Udal Kontseiluan eta Aldundikoan, elkarte horien independentzia eta autonomia handia bermatuko duten egiturak landuz.

6- Kontseilu horietan parte hartzen duten elkarteetako emakumeek, erakundeetakoek eta emakume arduradun politikoez berdintasuna lehentasunzkat har dezatela bermatzea, eta beharrezkoa bada prestakuntza prozesuak martxan jartzea (arduradun politikoenzkat, adibidez).

7- Azkenean, Emakumeen Etxea irekitzea, hiri eta eskualdeko emakumeen elkarten topaketa eta gogoeta lekua izan dadin. Etxe hori Tabakalera eraikinean izatea proposatzen dugu.

EMAN BOTOA FEMINISTEI!



[plazandreok]

emakumeen plataforma politikoa

PLAZANDREOK Emakumeen Plataforma Politikoa
Donostia Tfnoa: 943-29.21.40

E-maila: plazandreok@gmail.com,
<http://www.plazandreok.org>